

Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Euskal Plana (2008 -2011 aldia)



ENPLEGU ETA GIZARTE
DIREKZIOA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

I. Hitzaurrea

Agiri honetan 2008. urtetik 2011. urtera arteko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako bigarren Euskal Plana aurkezten da.

Plan hori VIII Legealdirako (2005-2009) gobernu-itunean sinatutako eta adierazitako konpromisoen zati bat da eta 2004. urtean Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako lehen Euskal Planarekin hasitako gobernuaren konpromisoarekin jarraitu eta sendotu nahi du EAEko ijitoen bizi-kalitatea, gizarte-ongizatea, gizarteratzea eta eskubide eta betebeharrak baliatzea hobetzeko.

Euskadin Plan hori lehen aldiz erakundeek eta ijito-komunitateak elkarrekin aurrera egiteko borondatea da ekarri zuen desberdintasunei begirunerik zorrotzena edukiz, gune komun bat eraikitzeko partekatutako prozesuan. Eraikitzeko ildo hori jarraituz, hemen aurkezten den bigarren planak aniztasunarekiko kohesionatuagoa, begirunetsuagoa izango den euskal gizarterantz aurrera egin nahi du, erasokorra diskriminazioaren aurrean eta aktiboki bizikidetzarantz bideratua.

Hurrengo orrialdeetan honako hausnarketa hauek aurkitu ahal izango dira: EAEko Ijito Komunitatearen egoerari eta lehenengo Planaren ebaluazioa egin ondoren atzemandako arrakastaren faktore nagusiei buruzko hausnarketak, loturei, printzipioei eta agentei buruzko hausnarketak, helburuei, ildo estrategikoei, xedeei eta ekintza-ildoei buruzko hausnarketak, eta aurreikuspen ekonomikoari buruzko hausnarketak.

Adierazi behar da dokumentuak, Planarren onarpen-unearekin bat etorriz (2009ko otsailaren 24a), Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak une horretan zuen egitura eta osaerari dagokion nomenklatura jasotzen duela, eta ez duela jasotzen Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretua indarrean sartzearen ondorioz ezarritakoa.

2. Ijito Herriak Euskal Autonomia Erkidegoan duen egoerari buruzko azterketa

Honako hau da azterketa horren erreferentziako agiri nagusia: Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Ongizate Zuzendaritzak aginduta 2005eko abendutik 2006ko azarora bitarte Ikusbide Elkarteak egindako “Ijito Herriak Euskal Autonomia Erkidegoan duen egoera”¹ azterketa. Azterketa hori Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako I. Euskal Planean aurreikusitako jardunen esparruan egin zen Ijito Herriak EAEn duen egoerari buruzko jakintza handitzeko, horretarako gainera gizonezko eta emakumezko ijitoei hitza emateko aukera ezarriz haien errealitatea zehazteko.² Azterketa hori azterketa honetarako behar direnean adierazten diren beste informazio-iturri batzuen osagarria da eta informazio-iturri horiekin alderatzen da; aurkakorik adierazten ez bada, ulertu behar da emandako datuak hemendik aurrera azterketa horretatik aterako direla.

Azterketa hori aberasteko, gainera Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza soziale-rako I. Euskal Planaren lantze-prozesuan adostutako diagnostikoan dagoeneko bilduta dauden beste alderdi batzuk berriz hartuko ditugu gehiago argitu eta aberasteko.

Goian adierazitako azterketak emandako informazioaren balioespen orokorrak, adostutako beste iturri batzuekin eta Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako I. Euskal Planean dagoeneko bilduta dauden alderdiei buruzko erreferentziarekin batera, Ijito Herriak EAEn duen egoerari dagokionez izandako hobekuntzak agerian uzteko aukera ematen du, baita oraindik hor dauden eta Plan honek aurre egin nahi dien zailtasunak eta eragozpenak zehaztasun handiagoz atzemateko ere.

2.1. EAEn bizi den ijito herriaren ezaugarri sozio-demografiko nagusiei buruzko hurbilketa

Ijito herria gutxi batzuen kultura da eta kultura gutxitua ijito hiritarren onarpenaren bila dabilen kultura. Gure gizartean dauden beste hainbat kultura gutxituekin alderatuz, kultura gutxitu egonkorra da

¹MANZANOS, C. (zuzendaria) “Ijito Herriak Euskal Autonomia Erkidegoan duen egoera”. Argitaratu gabeko txosten, Ikusbide Elkarte, Vitoria-Gasteiz 2006.

²Konfiantzari dagokionez +/- % 5etik % 95era bitarteko akats-marjina duen lagin adierazgarriarekin landu da azterketa eta sexuaren, adin-taldeen eta bizilekuaren arabera geruzatu da.

ijito-komunitatearena. Gainera komunitate askotarikoa eta heterogeneoa da, identifikazio komune-ko kultura-harremanak eta familia-harremanak dituen Estatuko beste hainbat tokitan dauden beste ijito-komunitate batzuekin gertatzen denaren antzera.

Azterketa honetan EAEn bizi den Ijito Herriari buruz ari garenean, batez ere XX. mendearen hasieran Gaztelako eta Andaluziako ijito-familien eta Euskadira 60. hamarkadako industrializazioan iritsitako ijito-familien ondorengoei buruz ari garela ulertu behar da. Beraz, ijito etorkinak (kopurua dela-eta portugaldarrak eta errumaniarrak nabarmendu behar dira batez ere) eta ijito-komunitate erromintxelak azterketa honetatik kanpo uzten ari gara.³

Nolanahi ere, azpimarratu behar da talde horiei buruzko nahikoa informazio eskuragarri ez dagoela eta geratu direla azterketatik kanpo talde horiek, eta aitzitik, ez da izan Plan honek eragin zitzakeen jardunetatik kanpo uzteko borondate esplizitua dela-eta, eta era berean, onuradun izan daitezkeen jarduntzat hartu behar dira. Alderdi horri dagokionez, azken urteotan gure lurraldean finkatu diren ijito herritarrek duten egoerari buruzko datu faltaren araberako muga egiaztatu genuen eta beraz, datozen urteetan erantzun beharreko erronketako bat gaur egun EAEn bizi diren beste ijito-komunitate horiek duten egoerari buruzko jakintza zehatzean aurrera egitea da.

Hori zehaztu ondoren, EAEn bizi den ijito-komunitatearen ezaugarri sozio-demografiko batzuk aurreratuko ditugu, gainera guztizko herritarrei konparazio-azterketa ezarriz ezaugarri horiek hobeto ikusteko.

Azterketa egin zen egunean, kalkulatzen da 12.800tik 13.300ra bitarteko lagunek osatzen dutela Euskadiko ijito-komunitatea; beraz, gutxi gorabehera EAEko biztanleria osoaren % 6, hau da, Euskadin bizi diren 1000 euskal herritarretik 6 ijitoak dira.

Euskadiko ijitoak batez ere gazteak dira, oso gazteak EAEko biztanleria-piramidearekin alderatzen badugu, eta jaiotza- eta hilkortasun-tasa txikiak uztartuta emaitza gisa adin gehiagoko gizarte-

³Lehenengo ijito-familiak XV. mendean iritsi ziren gure lurraldera eta nomadismoa muga-eremuetan egin zuten. Euskal kulturarekiko harremanei dagokienez, hizkuntza- eta kultura-mestizajea egin zuten eta bereizi hitz egitea eragin zuen, erromatarra eta euskara nahastea, erromintxela, oraindik adineko ijito batzuek hitz egiten dutena. Hitz bera hizkera horrekin nahiz gisa taldea osatzen duten lagunekin dago lotuta.

profilerantzko bilakaera deigarria eskaintzen du, eta 64 urtetik gorako biztanleria-taldeak 15 urtetik beherako taldea gainditu du. Ijitoen % 32,27k 0 urtetik 14 urtera bitarte dute, % 30,75ek 15 urtetik 29 urtera bitarte, eta % 11,97 eta % 19,42, berriz, Euskadiko biztanleria osoan (EIN, INEBASE 2004). Oro har, 29 urtetik behera edo 29 urte dituzten ijitoak (kontuan hartu horrek duen garrantzia eskolatzearen, lana lortzearen eta familia-etxea uztearen eraginei dagokienez, besteak beste) % 63,02 dira, ia biztanleria osoaren bi heren eta gizarte osoan adin-tarte horrek osatzen duen % 31,39 bikoizten du.

Jaiotza-tasari dagokionez, praktikan oro har biztanleriaren zenbatekoa bikoizten du, eta EAEko ijitoen kasuan, 18,5 jaiotza izaten dira 1000 biztanle bakoitzeko, eta 9,5 jaiotza, berriz, mila biztanle bakoitzeko biztanleria osoan (Eustat, 2006).

Ijitoen ezkontzeko adina batez beste, 18,62 urte da, 19,6 urte gizonezkoen kasuan eta 17,7 urte, berriz, emakumezkoen kasuan, eta senar-emazte gehienak ehunekotan 19 urtetik 23 urtera bitarteko adin-tartean daude. Datu horiek ez dute zerikusirik euskal gizarte osoari dagokionez eskuragarri dauden azken datuekin (Eustat 2005); datu horiek adierazten dute, batez beste, gizonezkoek 32 urtetik gora dituztela, eta emakumezkoek ere 30 urteen muga gainditzen dutela lehen aldiz ezkontzen direnean. Datuak ugari alderatu gabe, adierazi beharra dago, batez beste, ijito bikoteak EAEko ijito bikoteak ez diren bikoteak baino 12 urte inguru lehenago ezkontzen direla.

Ezarri beharreko politika jakin batzuetan (kontuan hartu, adibidez, etxebizitzaren eremua) duen eraginagatik kontuan hartu beharreko beste datu bat familien batez besteko tamaina da. EAE osoan etxe berean bizi den familia mota 2,64 lagunek osatzen dute (Eustat 2006), eta azken urteotan modu esponontzialean handitu dira guraso bakarreko eta pertsona bakarreko familiak; etxe berean bizi den ijito-familia mota, berriz, 4,56 lagunek osatzen dute. Egoera hori batez ere ijito-familien hainbat ugalketa-ohiturak eta belaunaldien arteko elkarbizitza-ohiturak direla-eta gertatzen da.

Amaitzeko, oso kezkarria den datua dagoela adierazi behar dugu. Erreferentziazat hartutako azterketaren arabera, ijitoen bizi-itzaropena 60 urtetik beherakoa izan daiteke, eta Euskadiko biztanle osoaren bizi-itzaropena, berriz, 80 urte ingurukoa da. Horrela, gutxi gorabehera 20 urteko aldea dugu.

Erabili den laginaren baldintzak direla-eta, azterketaren arabera, kontu handiz balioetsi beharreko datua bada ere, antzeko beste bide batzuetatik doa, zuhurragoak badira ere, eta bizi-itzaropenaren aldea⁴ 8 urtetik 10 urtera bitartekoa da.

Nolanahi ere, alde hori ez da kultura-jarraibideak direla-eta gertatzen, aitzitik, baldintza sozioekonomikoak direla-eta,⁵ uka ezin badaiteke ere erabilera eta ohitura batzuek osasunean duten eragina. Bi alderdiak, bizi-baldintzak eta bizimoduak, hain zuen ere, kontuan hartu beharko lirateke egoera horri erantzuna emango dioten jardunak diseinatzeko garaian.

2.2. Ijito-nortasuna

Ijito-nortasuna sendotzen duten ezaugarri komunak bereiz daitezke adierazitako azterketarako (Ikusbide 2006) elkarrizketatutako lagun gehienek (% 93,9) adierazten dutenez, gainera nortasun-adierazgarri horiek onartzearen aldeko balioespena egiten da ijito herriak jarraitzeko ezinbesteko elementu gisa.

Garrantzitsua da azpimarratzea ijitoentzat familia jakin bateko partaidea izatea hasieran gainerako ijito-komunitatearengandik gehien bereizten duen ezaugarria dela. Datuek erakusten dute familia dela ijitoentzat harremanak izateko gune nagusia eta familia dela baliabide nagusia arazoak planteatzeko eta konpontzeko eta partekatzeko garaian, segurtasuna eskaintzeaz eta ijitoen sozializazio-elementu nagusia izateaz gain. Ijito-familian beste kulturetako familietan bestelakoak diren elkartasun-eta aginte-arauak daude. Horrela, adibidez, alde batetik, adinduen paperak garrantzia handia dauka, izan ere, gainerako pertsonen begirunea dute, eta bestetik, nolabait esatearren, familiaren bizitzaren erdigunetzat hartzen dira haurrak.

Hildakoekiko begirunea izatea ijito herriak garrantzia-maila handiena ematen dion gaia da, eta orden horri jarraiki, ezkontza-errituak, adinduak etxean zaintzea eta jaiak eta ospakizunak.

⁴LAPARRA, M. (zuzendaria) *Ijitoen gizarte-egoerari eta aldatzeko joerei buruzko txostena. Lehenengo hurbilpen bat*. Alter Taldea. Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea 2007.

⁵BAACIGALUPE, A. eta U. MARTIN. *Gizarte-desberdintasunak EAEko biztanleriaren osasunean*. Arartekoa, Vitoria-Gasteiz 2007.

Elkartasun komunitarioa ezaugarri nagusietako bat da. Ijito herriak harremanak izateko sistema berezia dauka, mundu sinboliko jakinean (balioena eta sinismenena, munduaren eta pertsonaren interpretazioan, jabetza eta agintearen berezko ikuskera) oinarritutako gizarte-antolaketa zehatza, eta ezin da ulertu haren jatorria eta historia ezagutu gabe.

Izaera aske eta independentea, asimilazioarekiko edo ezarpenarekiko erresistentzia, ijito-nortasunaren beste ezaugarri komun bat da. Beste modu batean ez litzateke ulertuko ijito herriak kulturabaliabideei eta haren gizarte-antolaketari eustea, historian sakabanaketak eta nekeak jasan baditu ere. Horri lotuta mugigarritasuna egongo litzateke, arazoak konpontzeko modu gisa.

Azpimarra daitezkeen beste ezaugarri batzuk beste balio batzuk, hala nola, adierazitakoak, norberaren aberastearen eta adierazkortasunaren eta bizitza partekatzean pozaren gainetik jartzeko gaitasuna izango litzateke.

Garrantzia galtzen doazen gaien artean seme-alabak gurasoen lan berean aritzearena eta gazte ezkontzearena da.

Bestalde, baieztatu dezakegu erlijioaren alderdia lehentasunezko elementu eraldatzailea izan dela ijito-komunitatean.

Dena dela, ematen zaizkien itxura batzuk (batez ere ijitoak ez diren pertsonen) ez dira inondik inora nahi izateko modukoak. Ziur aski kasu gehienetan estereotipo eta aurreiritzi jeneratzaile eta bidegabekoen aurrean egongo gara, nolahi ere, ijito askoren gizarte-bazterketa bera dela-eta sortutakoak eta mantendutakoak, eta pertsona batzuen ustez ijito guztientzako aplikazio unibertsalekoak. Dena dela, estereotipo eta aurreiritzi horiek pertsona batzuen edo askoren buruan daudenez, (komunikabideetan, erakundeetan, auzotan edo lan-inguruetan) kontuan hartu behar ditugu benetako eraginak baitituzte ijito askoren bizitzan, ijitoek onartzen badituzte nahiz beste pertsona batzuek sinisten badituzte eta alde batek edo besteak portaera ez-egokiak sortzen badituzte. Aldez aurreko ideia horien artean honako hauek aipa ditzakegu:

- Elkarbizitzaren gizarte-arauen eta indarrean dauden legeen balioaz jabetzen ez diren pertsonak direlako ideia.

- Komunitate horretan, bestetan baino gehiago, emakumeek eta gizonek eskubide berdinak ez dituztelako iritzia.
- Hezkuntzari eta ijito-kulturaren zehatzak ez diren kultura-elementuetara sartzeari baliorik ematen ez dioten pertsonak direlako itxura.
- Ijitoek haien eskubideen alde borrokatzen ez dutelako edo borrokatu behar ez dutelako ideia, aitzitik, ezbeharrak daudenean etsi edo alde egin behar dutelako ideia.

Ikuspegi horiek, benetan, praktikan etorkizuna duen ijito-kultura eta Ijito Herria badagoela onartzearen aurkakoa eragiten dute. Izan ere, itxura horiek egoteak, askotan gutxi gorabehera estalitako jarrera arrazisten zati gisa, ijito askok jasaten duten bazterketaren eta gizarte-bazterketaren prozesuen arrazoi garrantzitsua sor dezake eta horregatik, nortasun- edo identifikazio-ezaugarriak horiek dituzten (ijitoak, eta batez ere, ijitoak ez direnak) pertsonen buruan aldatzea jarraitu beharreko helburu sakonetako bat da.

Nolanahi ere, baieztatu behar dugu kontuan hartu beharreko beste edozein gauzaren gainetik eta betiere giza eskubideen sustapena eta indarraldia bilatuta, ijitoek euren nortasuna mantentzeko eta harekiko begirunea izateko eskubidea dutela, baita lantzeko eta sustatzeko erronka ere, hori egitean gainerakoak aberastuz.

2.3. Ijito-komunitatearen gaitasunak

Norberaren gaitasunak hainbat modutan zehazten eta garatzen dira pertsona desberdinen kultura-jarraitubideen, gizarte-elkarreraginen edo funtsezko baldintzen arabera. Ijito-komunitatearen iritzia-aren arabera, esan dezakegu ijito herrian garatuago dauden trebetasunak, ahalmenak edo gaitasunak daudela, baina ijito herrian aniztasun handia dagoela ahaztu gabe. Gaitasun horiek, askotan, ez dira gehien balioetsi direnak izan industria-gizartean, batez ere lan- eta prestakuntza-eremuan. Dena dela, beharrezkoak dira eta gaur egungo informazioaren edo jakintzaren gizartea asko eskatzen ari da eremu guztietan: lan-eremuan, gizarte-eremuan, familia-eremuan, ohiko eremuan, honako hauek hain zuzen ere:

- Egokitze-, malgutasun-, mugigarritasun-, aldaketa-, inprobisazio, balioaniztasun-gaitasunak. Ijitoek joaten diren tokiko ohiturak eta hizkuntza ikasten dituzte.
- Ezbeharraren aurrean aurrera jarraitzeko aukera eman dien gainditzeko espiritua eta kemen handia.
- Dinamismoa jardueran eta komunikazioan, laguntzeko eta elkartasunerako erreakzionatzeko eta antolatzeko gaitasuna, taldean lan egiten jakitea, sormena, ekimena.
- Ijito-komunitatean ohikoagoak diren lanekin lotutako eta merkataritza-trebetasunak garatzeko aukera eman dieten ahalmenak, hala nola, merkatuari buruzko jakintza, zintzotasuna eta diplomazia, eta haratago, harremanak, negozioak, adostasunak, tratuak ezartzearekin lotuta dagoen guztia.
- Ijito-komunitateak modu solidarioan eta komunitarioan antolatzeko erabili du elkarrizketa, ohiturak, tradizioak, legeak eta balioak transmititzeko, familietan gertatzen diren hainbat egoera lantzeko eta gatazkak konpontzeko.
- Artisautza-eremuko gaitasunak eta arte-adierazpena (batez ere musika).

Dena dela, informazioaren edo jakintzaren gizarte horretan ere garrantzitsuak diren beste gaitasun batzuk pertsona askotan gutxiago garatuta daude, eta horien artean ijito asko daude. Hein handi batean hezkuntza- edo prestakuntza-testuinguruetan garatutako informazioaren aukeraketarekin, prozesatzearekin eta aplikazioarekin (batez ere idatzia) lotutako gaitasunei buruz ari gara batez ere. Gaitasun horiek garatzen ez dituzten pertsonak lan-merkatutik kanpo geratzen dira, eta horrek zuzenean eragingo du gizarteratzean edo gizarte-bazterketan.

Dirudienez, gaitasunak garatzea, gizarteratzearen edo gizarte-bazterketaren egoeraren arrazoia ez ezik ondorio ere bada. Erreparatzen badiogu, gehien garatutako gaitasunak ijito-familiaren barruko ikasketan lortzen direnak dira, eta gutxiago garatuta daude, berriz, modernizazio-prozesuan gizarte osoarekin lortzen direnak. Izan ere, oraindik gutxi dira Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide edo gizarte-rol jakin batzuei lotutako erreferente diren ijitoak.

Edozein kasutan ere, gaitasun batzuk gutxiago azaltzea oztopo bihurtzen da ijitoen bizi-kalitaterako eta eskubideak gauzatzeko. Horregatik, euren herriaren arazoez jabetu diren ijito askok eta ijito-komunitatearen sustapenez kezkatu diren pertsona askok, zentzu zabalean, hezkuntzaren aldeko apustua egin dute, pertsonen gaitasunak garatzeko tresna den heinean.

2.4. Hezkuntza

Oro har, euskaldunon eta ijitoen arteko alde adierazgarriena markatzen duen adierazleetako bat lortutako ikasketa-maila desberdina da. Nolanahi ere, egiteko dugun bide garrantzitsua onartuta ere, poztu egin behar gara hezkuntza-mailari dagokionez, denbora laburrean, -hala nola, belaunaldi bati dagokion denboran- izandako belaunaldi aldaketa handia dela-eta.

Duela belaunaldi bat ijito gehienek ez zuten ikasketarik (hiru laurdenak baino gehiagok), gaur egun, berriz, ehuneko hori heren bat baino gutxiagora murriztu da. Aldaketa horri esker uler daiteke ijito-familiek haien egoera duela urte batzuetako egoerarekin alderatuz, hezkuntza-mailaren inguruko hobekuntza gehien ikusten dutena izatea (familien % 85ek hala adierazi dute). Hobekuntza hori gainera emakume-izaeraren arabera da, prestakuntza-eskaintza osoari buruzko datuak kontuan hartuta, gaur egun emakumeen % 63,6 ikasten ari baita eta gizonen % 36,4. Nolanahi ere, emandako urrats eta aurrerapenetatik abiatuta,

Adinaren arabera ijitoek lortutako ikasketa-mailei buruzko datuak aztertuta, hobetzeko joera nabarmena ikus daiteke. Kontuan hartu adibide gisa 44 urte edo 44 urtetik gora dituzten pertsonen % 60,4k ikasketarik ez dutela, eta 16 urtetik 25 urtera bitartekoen zenbatekoa, berriz, % 18,3 dela. Eta lehen mailako ikasketei dagokienez, azterketa egin zen egunean (Ikusbide 2006) 44 urte zituzten edo 44 urtetik gora zituzten pertsonen %38k egin zituzten lehen mailako ikasketak, eta % 59,2k, berriz, 16 urte eta 25 urtera bitarte zituztenek.

Nolanahi ere, nahiz eta datu horiek animatzen duten arrazoizko baikortasuna egon, azterketa egin zen egunean ijitoen % 0,29k egin zituen unibertsitate-ikasketak, eta EAEko pertsonen % 20,59k, eta ijito-komunitatean ikasketarik ez duten pertsonen ehunekoaren (ia % 33) eta oro har biztanleriaren % 4,9ko ehunekoaren arteko aldea oraindik oso nabarmena da (Eustat 2001).

Familien % 61 eskolatzeko adinean dauden eta 16 urtetik beherakoak diren pertsonen osatzen dute, eta horiek normalean eskolara joaten dira, erregularitasunez joaten ez direnak, berriz, % 5,6 baino ez dira, normalean 3 urtetik beherakoak direlako edo osasun-arazoren bat jasateak joatea eragozten delako elkarrizketatutako familien arabera.

Ijito-komunitate gehienak eskolak duen garrantzia adierazten du, elkarrekin bizitzen, harremanak izaten irakasten baitie eta gizarte- eta ekonomia-sustapenerako beharrezkoak diren jakintzak ematen baitizkie. (Inkestatutako % 80k baino gehiagok hala adierazi dute). Inkestatutako % 25ak baino ez du aipatu haien seme-alabek nortasuna galtzeko duten beldurra eta azpimarratzekoa da eskolatze-maila handiagoa dagoen lurraldeetan ehuneko hori handiagoa dela.

Azterketaren beste datu esanguratsu bat ikasle ijitoen % 50ak eskola-errefortzua behar duela da eta gehienetan familiek ez daukatela horretarako baliabiderik, inkestatutako % 70ak baino gehiagok beka lor baditzakete ere, baieztatzen baitute beka horiek ezin dituztela euren premia guztiak bete.

2.5. Ekonomia eta enplegua

Familien egoera ekonomikoari dagokionez, esan beharra dago azterketak adierazten duela ijito-komunitatearen ustez hiru etxetik bik arazoak dituztela oinarizko premiak betetzeko, pobrezia egoera larrienean batez ere etxeen % 42,9ri eragiten badiote ere. Datu horiek "Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestan"⁶ agertzen diren (2004ko) biztanleriaren pobrezia iritzi subjektiboaren adierazle orokorrekin alderatzen baditugu, ikusten dugu etxeen % 25,4k oinarizko premiak betetzeko arazoak dituztela balioesten dutela eta % 8,6k pobrezia-egoerari buruzko iritzia dauka.

Ijito-komunitatearen enplegu-tasa ehuneko 16 puntu txikiagoa da gainerako euskal gizartearekin alderatuz gero, eta alde hori handiagoa da emakumeen enplegu-tasak alderatuz gero (ehuneko 24 puntu txikiagoa). EAEn 16 urtetik 64 urtera bitarteko biztanleriaren enplegu-tasa % 66,5 da, emakumeen kasuan % 57,0 eta gizonen kasuan, berriz, % 75,8; 2006. urterako azterketaren arabera, ijitoen enplegu-tasa % 49,91 da, gizonen kasuan % 69,2 eta emakumeen kasuan, berriz, % 33,6ra murrizten da.

Era berean, nabarmentzekoa da ijito-komunitateak enpleguan duen egonkortasun txikia lanean ari den guztizko biztanleriatik % 35,8k baino ez baitu enplegu egonkorra, eta oro har soldata jasotzen duen biztanleriak, berriz, % 76k (Eustat 2007).

Beste norbaiten kontura lan egiten duten pertsonen ehunekoa oso txikia da ijito-komunitatean gizarte maioritarioarekin alderatuta. Elkarriketatutako ijitoen % 22,8k beste norbaiten kontura lan egiten

⁶"Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestan" Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila. Eusko Jaurlaritzaren webgunea.

du edo lan egin du, eta oro har, biztanleriaren % 82,4k beste norbaiten kontura lan egin eta soldata jasotzen du (Eustat 2007).

Ijito-komunitateak garatutako ekonomia-jardueren artean salmenta ibiltaria (% 41) eta txatarra biltzea nabarmentzen dira. Azpimarratzekoa eta kontuan hartu beharrekoa da ijitoen iritziz salmenta ibiltaria ez dela hain bizimodu-bitarteko errentagarria; beraz, familia askok etorkizun iluna ikusten dute.

Ijito-komunitatearen arabera, kualifikazio handiagoa duten beste lan mota bat ez izateko arrazoi nagusiak aukera falta, beharrezkoa den prestakuntza ez izatea eta diskriminazioa dira.

Horren haritik, ECRIk⁷ 2005. urtean “Espainiari buruz argitaratu zuen Hirugarren Txostena” moduko ekarpenek adierazten dutenez, ijitoen aurkako diskriminazioa oso zabaldua dago oraindik, kontratazioaren unean nahiz lanpostuan bertan. Bestalde, “FSGren 2005eko Txostenak⁸ (Ijitoak eta Enplegua)” zenbait datu esanguratsu ematen ditu aditzera, hala nola, ijitoen % 45,40k diskriminazioa sentitu duela lan egitean edo prestatzean (kasu horien % 80 inguru ijitoak lan bila zebiltzala gertatu da). Prestakuntza-maila txikia edo oso txikia duten 25 urtetik 35 urtera bitarteko gizonezko langabe gehienek nabarmendu dute hori.

Azterketan (Ikusbide 2006) biltzen den datu interesgarrietako bat langabe askok hainbat administrazioetatik eskaintzen diren prestakuntza-ikastaroen berri ez dutela da.

Amaitzeko, adierazi beharra dago langabezia-tasak, aukera faltak, prestakuntza eskasak eta diskriminazio-egoerek ijito-familia askok diru-laguntzaren bat (% 60) eskatu behar izatea eragiten dutela, batez ere oinarrizko errenta eta larrialdiko laguntzak.

2.6. Osasun egoera eta laguntza sozio-sanitaria

Alde deigarriaren aurreko orrietan egindako aipamena ahaztu gabe, ijitoen bizi-itxaropenari dagokionez gainerako gizartearekin alderatuta, atal honetan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdietako

⁷ECRI: Arrazakeriaren eta intolerantziaren aurkako Europako Batzordea, Europako Kontseiluari esleitua.

⁸FSGren 2005eko txostena: Ijitoak eta enplegua. Azterketa alderatua.

bat gisa, ijito-komunitateak azken urteotan bizi-baldintzei dagokienez hobekuntza nabaritzen duen alderdietan osasuna da. Erreferentziazko azterketarako (Ikusbide 2006) elkarrizketatutako ijitoen % 65,7ren ustez euren egoera hobetu da, % 22,8ren ustez, berriz, okertu egin da.

Euskal gizarte osoan, ziur aski biztanleria zaharkitua delako, gaixotasun arruntenak (Euskadiko Osasunari buruzko Inkesta, Osasun Saila 2007) berez adinduenak dira: hipertentsioa (% 11,7), kolesterolemia altua (% 6,8), artrosia eta bizkarreko mina. Dena dela, ijito-komunitatearen gaixotasun arrunten zerrendan, era berean kontsulta egindako biztanleriaren % 20,5ean gaixotasun kronikoak badira ere, asmak eragindakoa da lehena, % 33,5 hain zuzen ere, eta horren ondoren, diabetesa; % 11,64k jasaten dute. Asmaren prebalentzia hori oro har EAeko biztanleriarena baino askoz ere handiagoa da (Oro har biztanleriak % 3,8 eta % 9,1 erreferentziaz 17 urtetik beherako biztanleria hartuta 2007ko Osasunari buruzko Inkestaren arabera).

Elkarrizketatuko lagunek ezintasun fisiko edo mentalak eragindako mendekotasun-egoerak dituztela adierazten dute, familien % 7,2k hain zuzen ere, eta adinak eragindakoak, berriz, % 5,1ek, eta euskal etxetan mendekotasun-tasen prebalentziari buruz aurreikusitako datua % 25 da (GZEE-AASS 2006⁹). Kontuan hartuta mendeko pertsonen ehuneko gehiena adin gehiagoko dutenei dagokiela, alde hori hein handi batean ijitoak oso gazteak direlako azalduko litzateke eta ijitoen bizi-itxaropena, adierazi denez, gizarte maioritarioarena baino txikiagoa delako. Nolanahi ere, hori eskuragarri dugun informazioari dagokionez aurrera egin behar dugun atala da, adinak nahiz ezintasunak eragindako mendekotasunari dagokionez, eremu horietan premiak hobeto ezagutzeko.

Ijito-kulturaren barruan familiak osasunaren arazoei heltzeko eta adinduei arreta eskaintzeko duen papera garrantzitsua denez, uler daiteke, oro har gizartearen antzera, laguntzeko sare informala arreta-hornitzaile nagusia izatea (% 62,9tik % 69ra bitarte mendekotasun-egoeraren arabera, 2006ko GZEE-AASSri jarraiki) ijito-familien barruan. Oraingoz, euren familien barruan mendekotasuna duen pertsonaren bat duela adierazten duten ijito-familien % 0,7k baino ez dute esan etxeko arretaren zerbitzuak edo eguneko zentroak edo antzekoak erabiltzen dituztela.

⁹Gizarte Zerbitzuen eskaerari buruzko estatistika- Gizarte premiak 2006. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. Eusko Jaurlaritza.

Medikuarenera joateko garaian lehenetsunak osasun-zentro publikora joatea dira, zehatz-mehatz hamarretik 7k ospitaletako larrialdi-zerbitzuetara joan baino nahiago du osasun-zentro publikora joan; datu horrek kontraesanean jartzen du ijitoek lehen mailako arreta gutxi aprobetxatzen duten eta larrialdi-zerbitzua gehiegi erabiltzeko joera duten ikuspegia.

Ijitoek osasun pribatuetako zerbitzuak maiz erabiltzen dituzten aipamena entzun ohi da, dena dela, % 3k baino ez du aitortu hori egiten duela. Azterketak emandako informazioak zehazten ez badu ere, esperientziak esaten digu ez dela osasun publikorako aukera, aitzitik osagarri bat bigarren diagnostikoa edo esku-hartze azkarragoa bilatzen denean, hau da, gizartearen gainerakoak osasun pribatura jo ohi duen inguruabar berdinetan.

Ijito-komunitateak modu positiboan balioesten du jasotako arreta, eta horrezaz gain, adierazten du ez dagoela arazorik zerbitzu medikoak lortzeari dagokionez (% 95).

Jakinarazten da automedikaziorako joera dagoela eta adin gehiago duten emakumezko ijitoek medikuarengana joateko erreparatu gehiago dituztela. Bestalde, ez dago prebentzio-programen berririk.

Familia askok adierazi dute egoera jakin batzuetan ez dituztela mediku-tratamenduak eta txostenak ondo ulertzen eta kasu askotan behar bezala azaltzeko pertsonak behar dituztela. Inguruabar horrek, garrantzirik ez duela badirudi ere, garrantzia du tratamendurako atxikipena mantentzeko askotan mediku-txostenei buruzko azalpenak, jarraitu beharreko medikazio-jarraitibideak, eta abar ulertzen ez dituztela uste denean ingurune hurbilenean ulertzen erraztuko dien laguntza egokia ez dutenean.

2.7. Etxebizitza eta ingurune fisikoa

Etxean bizi diren ijitoen batez bestekoa 4,56 kide da, eta oro har biztanlerian, berriz, 2,64 kide (Eustat/2006). Nolanahi ere, gainerako gizartearen antzera, ijito-komunitatearen barruan ere aniztasun-prozesu bat gertatzen ari da etxe motetan, eta horrela familia-tamaina anitz daude; adibidez, bi lagunez osatutako etxeak daude, normalean bikoteak edo guraso bakarreko familiak (% 11,2), baina oraindik ere badira 5 kide edo gehiagoko familia-nukleoak, askotan hiru belaunaldikoak eta etxeen % 27,1 dira, eta oro har biztanlerian, berriz, 3,63 (Eustat 2006).

Gaur egun ijito gehienak pisutan bizi dira (% 92). Hala ere, azpimarratu beharra dago atzera begiratzuz elkarriketatutako % 17,5 bizitzaren uneren batean txaboletan bizi izan dela.

Bestalde, EAEko ijitoen etxebizitzaren sailkapenari dagokionez "Etxebizitzari eta Ijito Komunitateari buruzko 2007ko Espainiako Mapa"¹⁰ bildutako datuen arabera, egoeren % 10ek egoitzari dagokionez egoera prekarioa dute (etxebizitza mugikorak, trantsizio-etxebizitzak, txabolismoa, etxeak egoitza-erabilerarako ez diren eraikinetan eta oso hondatuak dauden etxebizitzak). Egoera horien artean oso hondatuak dauden etxebizitzak dira azpimarratzeko modukoak (163 etxebizitza EAE osoan) eta horren ondoren, hain ohikoak ez diren beste egoera batzuk, hala nola, txabolismoa edo etxebizitza mugikorak.

Etxebizitzako ekipamenduei dagokionez, azterketan egiaztatzen denez, (Ikusbide 2006) etxeen % 96k ur beroa eta arropa-garbigailu automatikoa dute; aitzitik, etxebizitzaren hamarretik lauk baino ez dute berogailua edo igogailua.

Etxebizitzaren egoerei eta bertan bizi diren pertsonen dagokionez, elkarriketatutako 63k modu subjektiboan balioesten du etxebizitzan leku-arazorik ez duela, eta ijitoen % 35 inguruk etxebizitzan leku gehiago behar dutela uste du eta pilatuta bizi direla sentitzen dute, egoera gehienetan familia nuklear askok etxebizitza lortzeko zailtasuna dela-eta hainbat belaunaldi etxebizitza berean elkarrekin bizi behar dutelako, batez ere gazteenek. Ez daukagu ijitoek lehen etxebizitza behar duten datu zehatzik, %11,2 oro har, biztanlerian,¹¹ baina pilatuta bizi direla uste duten etxebizitzaren % 35 hori batez ere ijito-familiek etxebizitza lehen aldiz lortzeko duten premiaren ondorio da.

Etxebizitzaz aldatzeko asmoari buruzko datuak hartzen baditugu, ikusten dugu elkarriketatutako pertsonen % 50aren ustez etxer aldatuko lirakeela eta etxe handiagoa behar dutela edo behar izango dutela aipatzen duten arrazoi nagusizat, gaur egun pilatuta bizi direlako, arestian adierazi dugunez, nahiz etorkizunean leku gehiago edukitzea komeni zaiela aurreikusten dutelako. Galdera horren

¹⁰Ijitoen Idazkaritza Nagusia Fundazioa. Etxebizitza eta Ijito Komunitateari buruzko Mapa Espainian 2007. Madril 2008.

¹¹Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak egindako "2006ko EAEko Etxebizitza Premiei eta Eskarari buruzko Inkesta".

ondoren, gehien aipatutako bigarren arrazoa gaur egungo etxebizitzaren baldintzak hobetzea da. Oro har biztanleriarekin alderatuta, “2006ko etxebizitza premiari eta eskaerari buruzko txostenaren”¹² datuek adierazten dute etheen % 6,1ek baino ez dutela aldatzeko premia eta oinarrian etxebizitzaz aldatzeko arrazoiak ijito-komunitatearen arrazoiekin bat datoz. Datuen arabera, alde nabarmena ikusten da etxebizitzaz aldatzeko premiari dagokionez ijito-komunitatearen eta oro har biztanleriaren artean eta beraz, bizitzeko etxebizitzaren egokitasunari dagokionez, ijito-komunitatean hasierako egoera aurkakoa dela baieztatu dezakegu.

Etxebizitza babestuen arloan dauden baliabideen jakintza eta erabilerari dagokienez, azterketak egiaztatzen du ijitoek osatutako etheen % 31,7n Etxebiden izena eman duen pertsonaren bat dagoela.

Etxebizitza-erregimenari dagokionez, kasuen % 58,2an etxebizitza norbere jabetzan da, eta kasuen % 33,1ean, berriz, alokatzeko etxebizitzetan bizi dira. Alokatzeko etxebizitzaren artean familien % 16,1 alokatutako pisutan bizi dira Eusko Jaurlaritzaren bidez eta % 17, berriz, partikularrei alokatutakoak dira. Era berean, garrantzitsua da hiru lurraldeen arteko alde nabarmena azpimarratzea, eta Gipuzkoan alokatzekoak eta Bizkaian eta Araban jabetzan izateko erregimenak indar handiagoa duela nabarmendu behar da.

Ijito-komunitateak, gizartearen gehiengoaren antzera, (% 66,2 “2006ko Etxebizitza premiei eta eskaerari buruzko Txostenaren” arabera) etxebizitza lortzeko bide nagusi gisa erostea balioesten du, ijitoen ustez alokatzeko etxebizitza librea lortzeko zailtasuna bada ere batzuetan egoera horren arrazoa higiezinaren agentziek eta partikularrek aurreiritziak baitituzte.

Ijito etxe gehienak beste ijito-familia batzuen inguruan daude. Dirudienez, alderdi hori behar bezala balioesten da etxebizitzaz arrazoi batengatik edo bestearengatik aldatuko luketela uste duten kasuak (% 50) auzoz aldatuko luketenak baino gehiago baitira (% 28). Ildo horretan, kontuan hartu behar da, “2006ko Etxebizitza eta Ijito Komunitateari (Espainian) buruzko Mapan” agertzen denez, ijito-komunitatea bizi den auzoen edo bertan finkatutakoen % 20an ez dutela oinarritzko ekipamendurik, hala nola, gizarte-zerbitzuen zentroak, ikastetxeak, edo osasun-zentroak. Alderdi horrek auzoz aldatuko lukeen

¹²Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak egindako “2006ko EAEko Etxebizitza Premiei eta Eskaerari buruzko Inkesta”.

ijito-komunitatearen etheen ehuneko gehiena (% 28) justifika lezake oro har biztanleriaren etheen % 5arekin alderatuta, eta bizi diren auzoan pozik ez daudela adierazi dute, “2006ko etxebizitza-premia eta -eskaerari buruzko Txostenean” biltzen denez.

Azkenik, bizilagunen arteko bizikidetzari dagokionez, ijito-komunitatearen % 82aren ustez ez dute bizikidetzaz arazorik eta ez dute izan, % 10aren ustez garai batean izan zituzten, % 5ak dio gaur egun bizikidetzaz arazoren bat dutela eta % 3aren ustez, berriz, duela gutxi izan dituzte, baina dagoeneko konpondu dituzte.

2.8. Partaidetza, asoziazionismoa, bizikidetzaz eta administrazioarekiko harremanak

Ijitoen hauteskundeetako parte-hartze indizea boto-eskubidea duen biztanleria osoarekin alderatuz gero, ehunekoen aldeak nabarmenak ez direla ikusiko dugu; izan ere, lehenengo kasuan parte-hartze indizea % 61,3 da, eta hauteskunde-eroldaren % 68, berriz, EAEko biztanleria osoaren kasuan (2005eko apirilaren 17ko Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeei dagokienez). Datu horrek interesgarria dirudi, ijitoek gaur egungo edo etorkizuneko egoerari eragin diezaiokeela uste duten gaiak dagokienez askatasunez esku hartzeko aukera dutenean biztanleria osoaren antzeko baldintzetan egiten dutela berresten baitu.

Ijitoen asoziazionismoari dagokionez, garapen garrantzitsua izan da, batez ere azken hiru urteotan, eta ijito-elkartean gero eta lan handiagoa esku-hartze eta bitartekotza-programen bidez alor batzuetan, hala nola, eskolatzean, prestakuntzan edo bizikidetzan. Kasu batzuetan oraindik asoziazionismo hasi berrizat har badaiteke ere, oro har indartzeko premiarekin, gizarte-asoziazionismoa gutxiago garatuz erlijioaren gorakadarekin alderatuz eta elkartearen sareetan lotura gutxiarekin.

Bestalde, azpimarratu beharra dago oraindik ijitoek ijito-elkarteetan duten parte-hartze eskasa eta ia batere ijito-elkarteak ez direnetan (adibidez, ikasleen guraso-elkarteak edo auzo-elkarteak) eta oro har gizarteko sektore zabalarekin harremanik ez dutela.

Ijitoen eta ijito ez direnen arteko harremanei dagokienez, interesgarria dirudi aipatzea elkarriketatutako ijitoen % 92,74k balioesten dutela tratatu, bizikidetzaz eta begirune hoberantz aurrera egin dela

ijito ez direnek (% 38,26) ijito-kulturaren erabileren eta ohituraren berri izateko oraindik hobetu beharra dagoela uste badute ere, eta horretarako ijitoek gauza bera ijito ez direnekin (%35).

Beste testuinguru batean, edozein arazo edo premiarekin lotutako laguntza motaren bat aurkitu nahi denean, ijitoek familiarengana jotzen dute kasuen % 94,2an, ondoren lagunengana % 52,4an, eta gizarte-langileengana, berriz, % 50,1ean laguntza bila jotzen duten pertsonak gisa.

Ijito-komunitateko kideek sortutako etxeetako bi herenetan etxeko norbait inoiz udaletako gizarte-zerbitzuekin harremanetan jarri da, eta ijitoak ez diren familien kasuan, berriz, % 20,3 (GZEE-AASS 2006¹³). Kasu gehienetan gehien errepikatu den arrazoia gizarte-laguntzekin lotura duten gaiak izan dira eta askoz ere ehuneko txikiagoan gai burokratikoak konpontzeko eta etxebizitzan hobekuntzak aurkitzeko.

Ijito-komunitatearen eta gizarte-langileen ustez anibalentea da. Alde batetik behar bezala tratatzen dituztela uste izan eta arazoak konpontzen saiatu badira ere, (% 53,6) bestetik, adierazi dute kasu askotan ez dituztela ijitoak ezagutzen eta kasu askotan kontrolatu egiten dituztela eta haiekiko jarrera fiskalizatzailea mantentzen dutela.

Oro har, administrazioko zerbitzu eta laguntzekin duten harremanei dagokienez, elkarrizketatutako % 57,1en ustez egoera hobetu egin da azken urteotan, eta arrazoi nagusia gizarte-laguntzak handitzea, eta ondoren profesionalek arreta hobea eskaintzea izan dela adierazi dute.

Nolanahi ere, gaur egun Euskadiko ijito-komunitatearekin dauden diskriminazio-egoerek oraindik herritartasun hori lortzeko zeregin handia dagoela adierazi digute. Arartekoaren bulegoan (2007an) egin berri den Txostenak Ijito Herriari eskainitako arreta zehatzari buruzko atalean honako hau mantentzen du: diskriminazio handia jasaten du eta gutxiengo giza eskubideak ez dira behar beste babesten. Askotan, jarraitzen du, praktika diskriminatzailearen biktima da eta ondasunak eta zerbitzuak gainerako euskal herritarren baldintza berdinetan lortzea eragozten diote.

¹³Gizarte Zerbitzuen eskaerari buruzko estatistika- Gizarte premiak 2006. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. Eusko Jaurlaritza.

Diskriminazioa berez EAeko ez den eta bertakoa soilik ez den errealitate bat da, txostenak berak azaltzen duenez, aitzitik, Estatu osora zabaltzen da. EAeri dagokionez, Arartekoaren bulegoko Txostenak honako gauza hauekin lotutako arazoak bame hartzen dituen kasuistika biltzen du: etxebizitza-premia, errolda ukatzea, konfiantzarik ezaren arazoak eta baztertua ijitoen artean, bizilagunak edota herri-administrazioak, gizarte-prestazioak etetea eta ijito-haurrak eskolatzea. Gure erreferentziarako azterketak (Ikusbide 2006) gainera ijitoek beste eremu batzuetan, hala nola, lane-ratzean (% 44) edo jolas-, aisialdi- edota kirol-zerbitzuetara jotzean (% 27) bizi izandako diskriminazio-egoerak biltzen ditu.

Aurrekoaz gain, ijitoak araudiek Ijito Herriaren berezitasunak kontuan hartzen ez dituztela kexatzen dira araudi horiek aplikatzeko garaian, eta haien idiosinkrasiarekiko, erabilerekiko eta ohiturekiko ulermen faltatik eratorritako gaizki-ulertuak oso maiz izaten direla uste dute.

Beraz, ijito-komunitateak balioesten du profesional batzuek eta oro har komunitateak ijito-herriaren benetako egoeraren eta ijito-familien garapena zailtzen duten dinamikien edo oztopoen eta oro har, gaur egungo gizartean desberdintasunak handitzean eragiten duten dinamikien berririk ez dutela. Gauza horien berri ez izateak arazoak bana-banako edo familia-faktoreei egotzen die eta balizko interes eza edo kultura-hutsuneak izan daitezke; beraz, batzuetan eremu bakoitzean dauden oztopoak hortxe geratzen dira.

Bestalde, ijito-familiei dauden programa eta baliabideei buruzko informazioa bidaltzeko kanal egokiak falta dira eta horren berri eza dela-eta, gure gizartean dauden prestazio eta zerbitzuak gutxi aprobetxatzen dituzte.

Atal hau amaitzeko, adierazi beharra dago elkarrizketatutako ijitoen % 71, lek sumatzen duela epai-leek eta polizia gainerako herritarrak baino okerrago tratatzen dituztela. Bestalde, bildutako datuek egiaztatzen dutenez, ijitoen familien % 23an kideren bat espetxean dago edo espetxean izan da.

Elkarrizketatutako lagunek azterketan hainbeste lagun espetxean egotea egotzen duten arazoak askotarikoak dira, baina polizia ijitoekiko duen jazarpen selektiboa azpimarratu behar da. Baieztapen horiei zor zaien sinesgarritasuna eta errespetua ukatu gabe, apreziazio subjektiboak dira, eta horien egiazkotasuna konprobatu egin beharko litzateke.

Beste balizko azalpen batzuen artean honako hauek daude: ijitoek bizitza ateratzeko egiten dituzten zenbait jarduera batzuetan ezkutuko ekonomiaren jarduerak dira edo arautu gabeko jarduerak izate-tik, agintariek nolabaiteko tolerantzia erakusten zuten jarduera haiekiko, delituzkotzat hartzen diren jarduerak izatera igaro dira. Delituak egitea bera ere balizko azalpentzat adierazten da.

3. Euskadiko Ijito Herriaren sustapenerako politikak Europako eta Estatuko testuinguruaren barruan

Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Euskal Plana Europan eta Estatuan ijito-komunitateari dagokionez garatzen diren politiken esparruan kokatzeko, ohar garrantzitsu batzuk azalduko ditugu Planean kontuan hartutako ildo estrategikoak testuinguruan hobeto kokatzeko.

3.1. Ijitoen gutxiengoari arreta Europan

Ijito Herriaren jatorriko lekua India dela aho batez onartuta ere, ijitoa guztiz Europakoa den gutxiengo da. Rromek¹⁴ Europa osoan gutxiengo gehiena izatea lortu dute, 12-15 milioi biztanle ingururekin (7 milioitik 9 milioira bitarte EBn) lurraldearen arabera nabarmen modu irregularrean banatuta, Europako Ekialdeko herrialdeetan gehiago ikus badaitezke ere, bereziki eta orden honetan, Errumanian, Bulgarian eta Hungarian. Komunitate heterogeneoa da, eta nortasun-sentimendu handia badute ere, Herri-sentimendua¹⁵ azken finean, azpialde anitzek osatzen dute (Kalderash, Calés eta Sintis, besteak beste) hizkuntzari, historiari, lanbideari eta abarri lotutako berezitasunekin.

Haren historia Europan, zehaztu beharrik gabe, haien herrialdeetako axolagabekeriak, banantzeak edota jazartzeak markatzen du, baina ez kultura eta nagusi diren bizimoduak nahitaez asimilatzeo ahaleginetik. Bilakaera historikoak eraginda, oro har, onartu ezin diren desberdintasunak ikusten dira euren bizi-baldintzen eta ongizatearen eta Europako gainerako gizartearen artean.

Ijito Herriari dagokionez Europako eremuko jardunek, herrialde bakoitzaren bilakaera historiko eta politikoaren oszilazioak jasan dituzte; dena dela, handitzen ari den interesa ikusten da, batez ere Europar Batasunari dagokionez, adostutako, koordinatutako, eraginkorrak eta iraunkorrak diren politikak

¹⁴Rom hitza ijitoek eurek eurei buruz aritzeko unibertsalki onartutako izena da 1971. urtean Londresen egin zen Ijitoen I. Munduko Kongresuan hala erabaki zenetik.

¹⁵1979. urtean Nazio Batuen Erakundeak munduko ijitoei lurrik gabeko Herri-baldintza onartu zien eta Romanó Ekipéri (Romen Batasuna) aholku-estatusa eman zion zuzeneko solaskide izateko.

gauzatzeagatik, betiere politika horiek ijitoen integrazioa sustatzera eta haien funtsezko eskubideak defendatzera bideratuak Europako heritar-baldintza onartzeari begira.

Ijito gutxiengoari eskainitako arreta gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da Europako agenda politikoan batez ere 1993. urtean kopenhaguen irizpideak ezarri zirenetik, bereziki Giza Eskubideekiko begiruneari eta gutxiengoak babesteari dagokionez, eta Europar Batasuna hainbat aldiz zabaldu delata; zabaltze horrek Ijito Herriaren egoera nahitaez onartzea eta horri dagokionez agenda politiko partekatua ezarri behar izatea eragin ditu.

Horri dagokionez, 2005eko [P6_TA (2005)0151] apirilaren 28ko Europar Batasuneko romanien egoerari buruzko Europako Parlamentuaren Ebazpenak balio diagnostiko eta estrategiko argia du etorkizuneko politika horietarako, eta era berean, aurreko ekimen politiko nagusiak eta arau-aurre-rapenak biltzen ditu.

Laburbilduz, Ebazpen horrek onartu ezin den errealitatea onartuko du, honako bi inguruabar nagusi hauekin lotuta dagoena, hain zuzen ere: arrazoi etnikoengatiko diskriminazio-egoerak (eta bantantzeak, gorrotoak, arrazakeriak, adinarengatiko, sexuarengatiko, ezintasunagatiko, eta sexu-orientazioagatiko diskriminazio anizkoitzak eragindakoak) eta gizarte-bazterketaren egoerak (batez ere etxebizitza-, osasun-, hezkuntza- eta enplegu-eremuan). Ebazpenak Europa Kontseilua, Europako Batzordea eta Estatu kideak ezartzera behar dituen erantzunak, bi gaketan aurrera egiteko beharra azpimarratzen du: ijito-komunitatearen kultura-nortasuna eta etnia eta nazioko gutxiengo-baldintza onartzea (estatus horri dagozkion eskubideak onartzea da) eta oro har gizarte-bizitzan eta politika-bizitzan batez ere, bereziki ijito-komunitatearen bizitzari eta ongizateari eragiten dioten erabakiei dagokienez, ijitoen partaidetza eraginkorra sustatzea.

Bruselan (2008.09.16), EBko Frantziako presidentek eskatuta egin zen Ijitoei buruzko Europako Gailurrak ¹⁶, EBko Estatu kideko ordezkariak Ijitoak Integratzeko 2005-2015 hamarkadan parte hartzen ariko diren Europako Parlamentuko eta Europako Batzordeko Estatuko kideekin, ijitoen ordezkariekin eta gizarte zibilaren erakundeetako kideekin elkartzeko gune izateko balio izan zuen. Azken Adierazpenak oinarrian arestian adierazitako Ebazpenean ageri diren ildoak partekatzen ditu,

¹⁶<<http://www.unionromani.org/notis/noti2008-09-21.htm>> web-orrian Adierazpen osoa kontsulta daiteke.

eta era berean, koordinazioa hobetzeko beharra azpimarratzen du baterako, eta herri-administrazioek eta gizarte-erakundeek koordinatutako eta partekatutako estrategiaren bidez (Europako estandar komunak ezarri, eta jakintza praktikoak eta badauden tresna komunitarioak aprobetxatuz). Horretarako ijito-komunitateak ahalbidetzen aurrera egiten jarraitzea beharrezkoa da, horregatik alde batera utzi gabe, aitzitik, Estatu kideek duten erantzukizuna azpimarratuz politika horiek garatzeko eta praktikan jartzeko garaian.

Adierazitako gakoan ildotik, arrazakeria-diskriminazioa eta gizarte-bazterketa aurre egin beharreko alderdi gisa eta kultura-nortasuna onartu eta partaidetza soziala eta politikoa sustatzea aurrera egin beharreko gune gisa herri-administrazioek eta gizarte-erakundeek adostutako eta partekatutako estrategiatik, zenbait ekimen politiko eta arau-aurrerapen garatu dira eta zenbait baliabide esleitu ez soilik EBn (Gizarteratzeko eta Diskriminazioaren aurka Borrokatzeko Europako Estrategiak, Egitura Funtsak-batez ere FSE eta FEDER-, 2000/43 eta 2000/78 Arteztarauak, Aukera Berdintasunen Europako 2007. urtea eta Kulturen arteko Elkarrizketaren Europako 2008. urtea, Ijitoei buruzko Zerbitzuen arteko Taldea eta Gutxiengoei dagokienez maila handia duen Taldea sortzea, eta abar.¹⁷) baita nazioarteko erakundeek eta erakunde pribatuek ere (kontuan hartu adibide gisa honako huek sortzea: Ijitoei eta Migrazioei buruzko Dibisioa, ECRI, Arrazakeriaren eta Tolerantziarik ezaren aurkako Europako Batzordea, Giza Eskubideen Komisarioa Europako Kontseiluaren esparruan, Giza Eskubideetarako Bulegoa-Roma eta Sintientzat harremanak izateko gunea bame hartzen du- ESLAn, Europako Segurtasunerako eta Lankidetzarako Antolakundea, edo lehen adierazitako Ijitoak Integratzeko 2005-2015 hamarkada ekimena¹⁸).

Bai erreferentziazko esparru politiko gisa balio izan dutelako, batzuetan ezarri beharreko ekimenak batera finantzatzeko aukera interesgarriekin batera, bai Estatuko ordenamendu juridiko edota administratibora aldatzeko beharra duelako, ijito-komunitateari dagokionez, Europako politiken ildo nagusiek Espainiako Estatuan garatu beharreko politikak bideratu eta baldintzatu dituzte eta erreferentzia nagusi horietako batzuk hurrengo atalean zerrendatzen dira.

¹⁷Informazio gehiago nahi izanez gero, honako web-orri hau kontsulta daiteke: “The UE and the Roma” (<http://ec.europa.eu/employment_social/fundamental_rights/roma/index_en.htm>).

¹⁸Informazio gehiago nahi izanez gero, honako web-orri hau kontsulta daiteke: “Decade of Roma Inclusion” (<<http://www.romadecade.org/>>).

3.2. Espainiako Estatuaren politikak ijito-komunitateari dagokionez

Giza Eskubideetarako Europako Kontseiluko komisario Álvaro Gil-Roblesek 2005. urtean Espainiara egindako bisitaldiari buruz egindako Txostenak Espainiako ijitoen egoera hobetzeari buruzko gomendioak funtsezko bi ideiatan laburbiltzeko bertutea du: (1) Ijito-komunitateak etxebizitza, hezkuntza eta enplegua lortzen errazteko neurriak hartzeko premia eta (2) ijito-komunitatearen bizi-baldintzak garatu eta hobetu nahi dituen gobernuaren estrategia horretan edo beste batean ijito-erakundeek partaidetza aktiboa izateko premia.

Gunean eta denboran aurrera eginez, ez dugu ezer berririk aurkituko argitaratu berri den Espainiako Erresumako Gizarteratzeko IV. Plan Nazionalan (2006-2008); bertan 3. atalean, kalteberatasun-egoera handiengan dauden lagunen aldeko Jardunen barruan, berriz ere, besteak beste, Autonomia Erkidegoekin lankidetzan erabateko esku-hartze sozialaren proiektuak garatzeko ekimenak, tratu- eta aukera-berdintasunekin lotutako jardunak, eta ijitoentzako Autonomia Erkidegoen plan zehatzak aurkituko ditugu, hori guztia Ijito Herriaren Estatu Kontseiluak aurreikusitako funtzionamendu arruntaren esparruaren barruan.

Bi kasuetan, aurreko atalean Europari buruz adierazitako gaur egungo joeraren beste isla bat besterik ez da, eta ijito-komunitateari buruzko politikak erabateko esku-hartzeko testuinguruan bideratzen ditu bazterketa- eta diskriminazio egoerak esku-hartze horien onuraduntzat hartutakoek modu parte-hartzailean lan dezaten eta ijito-komunitatearentzako gizarte-politiketan aholkularitza-eginkizunak dituzten parte-hartze organoak sortzean ikus daitekeenez (Extremaduraren kasuan 179/2001 Dekretuak sortutako Ijito Komunitatearentzako Eskualde Kontseilua, 4/2002 Legeak araututako Madrileko Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren Integraziorako eta Sustapenerako Mahaia, 102/2005 Dekretuaren arabera sortutako Ijito Herriaren Plan Integralaren eta Kataluniako Ijito Herriaren Aholkularitza Kontseiluaren Sailen arteko Batzordea, edo berriena den eta 891/2005 Dekretuaren arabera sortutako eta araututako Ijito Herriaren Estatuko Kontseilua, garrantzitsuenak aipatzeagatik) baita ijito-komunitatearekin jardunen Plan integralak onartzean eta abian jartzean (1989. urtean hasitako Estatuko Ijito Garapenaren Programa zaharkitua baino haratago kontuan hartu –etorkizun hurbilean eguneratutako bertsio batek aldatu beharrekoa, dagoeneko adierazitako Ijito Herriaren Estatuko Kontseiluan garatutako lanaren emaitza izanik-, 1996ko Andaluziako Ijito Komunitatearentzako Plan

Integrala, 2006. urtean Katalunian onartu zen Ijito Herriaren Plan Integrala edo 2007. urteko Galiziarren Bizikidetzarako eta Gizarte Garapenerako Plan Integrala). Hori guztia, argi eta garbi, gure Autonomia Erkidegoaren aurrekariak ahaztu gabe, Euskadiko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseilua sortu baikenuen ¹⁹ 289/2003 Dekretuaren arabera eta 2004ko azaroaren 16an Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Euskal Plana onartu baikenuen.

Era berean, gogorazi behar da dagoeneko adierazitako ekimenei, izenak adierazten duenez, batez ere partaidetza-ikuspegitik ijito-komunitatearen erabateko gizarte-garapenari bideratutako ekimenak, garrantzi berekoak diren eta ijito-nortasuna, hizkuntza eta kultura onartzearen eta sustatzearen ildoan ugari diren beste ekimen batzuk batu zaizkiela. Haien artean, duen eraginagatik, azpimarratu beharra dago 2005eko irailaren 27an Diputatuen Kongresuan Ijito Herriaren Eskubideak onartzeari buruzko Legez Kanpoko Proposamena onartu zela, baina ekimen horren aurretik Kataluniako Parlamentuan 2001eko ekainean Ijito Herriaren duintasuna eta haren kulturaren balioa onartzeari buruzko Legez kanpoko Proposamena onartu zen, Andaluziako eta Kataluniako Autonomia Estatutu berrietan (2006) kultura eta erabateko gizarte-parekatzea onartzearen apelazioa izan zen, eta nahi den gizarte-inpaktuagatik interes berezia duen Kultura Ministerioaren ekimenez sortu berri den Ijito Kulturaren Institutu Fundazioa eta 2006ko apiriletik martxan dagoena.

Azkenik, 2007. urtea arraza- edo etnia-jatorriarengatik Pertsonen Tratu berdintasuna eta Diskriminaziorik eza sustatzeko Kontseilua arautzen duen irailaren 21eko 1262/2007 Errege Dekretua onartu izanaren lekuko izan da; Dekretu hori pertsonen, edozein arraza- edo etnia-jatorritakoak izanik ere, tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzko 2000ko ekainaren 29ko Kontseiluaren 2000/43/EE Zuzendarauan aurreikusita dago.

¹⁹Euskadiko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseilua sortzea Jardunbide Egokitza hartu da Partaidetzaren arloan Gizarte Bazterketari aurre egiteko Ekintza Zuzendaritzaren Programaren esparuan landutako *Europako Ijito Herriaren Gizarteratzeko Jardunbide Egokien Gidaliburuan* (2002-2006) Europako Batzordearen Enplegu, Gizarte Gaietako eta Aukera Berdintasunen Zuzendaritza Orokorren VP/2004/004 deialdia.

4. Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Lehen Euskal Plana ebaluatu ondoren Bigarren Planaren arrakastaren faktore nagusiak identifikatzea

Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Lehen Euskal Planaren ebaluazio-prozesuan Plangintza egiteko prozesu berri honetan kontuan hartu beharreko arrakastaren faktore nagusiak identifikatu ziren ondoren bilduko ditugun bigarren Planaren diseinuarekin lotutakoak azpimarratuz:

1. Planaren irismena:

- Plan bat lantzea zehaztapen-maila handiagorekin eta jardunak lehenetsiz garrantzi-mailaren arabera kontuan hartutako arlo edo sektore bakoitzaren barruan. Hainbesteko lehentasunik ez duten jardun arruntak eta jardun esanguratsuagoak eta proiektu pilotu estrategikoak bereiztea, helburuak lortzeko aurrera egiteko aukera emango dutenak eta hainbat ikuspegitatik eragin biderkatzailea izateko aukera izango dutenak:
 - Esanguratsuak izango diren esperientzia zehatzak bultzatzea, premia garrantzitsu bati erantzuten diotelako, (adibidez, enplegua, etxebizitza), diskriminazio-egoerak lantzeko aukera ematen dutelako, ijito-kulturaren berezko balioak identifikatzeko aukera ematen dutelako, beste errealitate batzuetarako jakintza esanguratsua sortzeko eta transferitzeko aukera ematen dutelako eta abar.
 - Udalerrri batzuetan esperientzia pilotuak bultzatzea gero beste udalerrri batzuetara transferitzeko.
- Lehen Planean bildutako helburu gehienak mantentzea helburuak berrikusi eta zuzendu ondoren.
- Handiagoa den Planaren etorkizuna ezartzea (4 urte).

2. Planaren subjektua:

- Plana Erakundeen arteko Plan gisa lantzea. Nolanahi ere, osorik hartutako udalerrrien benetako papera argitzea jardunen ardura hartuko duen agentea izango den heinean. Udalerrri horiek agente laguntzailezat har daitezke edo udalerrri jakin batzuk jardun estrategiko jakin batzuen arduraduntzat.
- Ijitoen eta ijitoen aldeko erakundeak kontuan hartzea Planaren subjektu esanguratsu diren heinean.

3. *Aukeretara egokitzea, Plana zehaztea eta erreferente argien bermea:*

- Helburuak lortu diren ebaluatzeko aukera emango duten lehentasunezko jardun estrategikoe-tan helburuak edo estandarrak zehaztea.
- Helburuak eta jardunak epeetara, baliabideetara eta agenteen benetako gaitasunetara egokitzea.
- Jardun guztiei, alde batetik, arduradun bakar zehatzak izendatzea, eta bestetik, agente laguntzai-leak, jardunak bultzatu eta abian jartzearen eta jardunak betetzen direla aldizka ebaluatzeko eta helburuak betetzen diren ardura hartuko duten erreferente argiak bermatuz.
- Planean bertan Planaren jarraipena egiteko mekanismoak sartzea: Jardunen betetze-maila, bete-tzea Planean aurreikusitakora egokitzea (egutegia, arduradunak, aurrekontuaren betetze-maila...).
- Jardunak abian jartzeari eta jardunen jarraipena egiteari dagokionez jardunak garatzeko ardura duten erakunde eta entitate bakoitzeko erreferentziatzko pertsonak identifikatzea.

4. *Planaren lantze-prozesua eta abian jartzea zaintzea:*

- Planaren lantze-prozesua zaintzea Lehen Planean egin zenaren antzera: Ijito-komunitatearen eta gainerako agenteen inplikazioa prozesuan, elkarrizketa hausnarketa egiteko eta akordioak lortzeko elementu gisa, adostasuna lortzea eta ijito-kulturarekiko begirunea izatea.
- Planean bertan Plana ezartzeko (abian jartzea) mekanismoak sartzea: plana zabaltzeko ekintzak —ijitoei eta tokiko administrazioei arreta berezia eskainiz—, sentsibilizazio-ekintzak, agenteak prestatzea eta abar.

5. *Planaren finantzaketa:*

- Planaren lehen urterako aurrekontu zehatzak bermatzea Eusko Jaurlaritzaren Saitetan eta gai-nerako herri-administrazioetan euren ardura duten jardunak finantzatzeari begira. Batez ere jar-dun estrategikoetarako, baina jardun arruntetarako ere ezartzeko ahaleginak eginez. Era berean, kostuen aurreikuspena egingo da plana gauzatzeko gainerako urteetarako, jardun estrategikoe-tan behintzat.

5. Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako

II.Euskal Planaren loturak Eusko Jaurlaritzak garatutako Sektore Planekin

Eusko Jaurlaritzaren hainbat Planen azterketa egin ondoren, egiaztatu da plan horietako baten loturak daudela edo egon daitezkeela Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Euskal Planarekin Planaren barruan Ijito Herrian eta haien premietan eragin dezaketen ekintzak sartzen baitituzte.

Plan horien artean honako hauek azpimarratzen ditugu:

- Gizarteratzeko Erakundeen arteko II. Plana (2007-2009).
- Etxebizitza Bideratzeko Plana 2006 – 2009.
- EAEko Droga Mendetasunei buruzko V. Plana 2004 – 2008.
- Enplegu Plana 2007 - 2010.
- Osasun Plana 2002 - 2010.
- Inmigrazioari buruzko II. Euskal Plana 2007 – 2009.
- Kulturaren Euskal Plana.
- Sasoikako Lanaren Arretarako II. Plan Integrala.
- Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Plana.
- Gazte Justiziaren III. Plana.

Horregatik kasu bakoitzean egokiagotzat hartzen diren loturak ezarriko dira hainbat planen eta Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako II. Euskal Planaren artean.

6. Xedea eta helburu orokorrak

Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako II. Euskal Plan horretarako eta lehen Planaren ebaluazioa egin ondoren, ondoriozta dezakegu indarrean jarraitzen dutela orduan identifikatutako azken xedeak: Ijito Herriaren erabateko sustapena eta partaidetza sozialak, hain zuzen ere.

Beraz, alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko ijitoen bizi-kalitatea eta gizarte-ongizatea hobetu nahi dugu gainerako biztanleriaren berdintasun-mailetan kokatu arte, eta bestetik, bizitza publiko eta sozialean haien partaidetza bultzatu eta erraztu nahi dugu, asoziazio-mugimendua bultzatu eta bizikidetzara hobe ahalbidetu.

Azken xede horien ildotik, honako helburu orokor hauek planteatzen dira:

1. Ijitoen bizi-kalitatea eta gizarte-ongizatea hobetzea gainerako biztanleriarekin alderatuta, ijito-komunitateak abiapuntu dituen desberdintasunak gainditzeko aukera emanez eta hori lortzea zailtzen duten oztopoak kenduz.
2. Bizitza publikoko hainbat gunetan ijitoen partaidetza soziala erraztea.
3. Bizikidetzara hobe ahalbidetzea ijito herriaren kulturaren eta historiaren berri izanez eta ijito-nortasuna onartuz.

7. Printzipio orokorrak eta operatiboak

Honako hauek dira Plan guztia gidatzen duten printzipio orokorrak:

- *Berdintasun-printzipioa*: Prestazioak eta zerbitzuak berdintasunez baliatzeko aukera gauzatzea eskatzen du, baita herritar guztiei onartutako eskubide nahiz betebeharretan berdintasuna bermatzea ere.
- *Partaidetza-printzipioa*: alde batetik, Plan hori eta eragiten dieten politika publikoak lantzean, gauzatzean eta jarraipena eta ebaluazioa egitean ijitoen partaidetza izateak duen garrantzia eta bestetik, ijito-komunitatearen partaidetza ahalbidetzeko premia, hainbat gune publikotan lotua eta ez lotua.
- *Erantzukizun publikoaren printzipioa*: Eskubideak eta betebeharrak baliatzean herritarren berdintasunaren kudeatzaile diren heinean botere publikoek duten erantzukizuna da integrazioa.
- *Sexu-arrazoiengatik diskriminaziorik ezaren printzipioa*: Emakumezko ijitoek diskriminazio bikoitza jasaten dute emakumezkoak eta ijitoak izateagatik eta aipatu egin behar da. Diskriminazio bikoitza horri aurre egiteko, Plan hori gauzatzean zeharka sartuko da emakumezkoen eta gizonezkoen arteko desberdintasunak kentzeko helburua eta kasuren batean emakumezkoen aldeko aplikazio desberdina izango duten neurriak hartuko dira.

Honako hauek dira Plana ezartzea gidatzen duten printzipio operatiboak:

- *Normalizazio-printzipioa*: Plan horren bidez ijito-komunitatearen eskubide eta betebeharren berdintasunean eragin nahi da kultura-aniztasunaren esparruaren barruan. Horregatik, normalizatutako baliabideen bidez ijito-komunitatearen premiei erantzuten saiatuko gara haiek lortzea desberdina izan gabe ijito izate hutsagatik. Ijito-komunitatearen eskubide eta betebeharren berdintasuna onartzen bada ere, (normalizatutako arretan islatzen da) modu zehatzean eta hala badagokio, ekintza positibo bidez, beti ikusten ez diren oztopoak direla-eta, ijito-komunitatearen egoera baldintzatzen eta larriagotzen duten inguruabarrei, eta batez ere ingurune askotan dauden estereotipo eta aurreiritziei arreta eskaini behar zaie.
- *Zeharkakotasun-printzipioa*: Zeharkakotasunetik abiatuta, ijito-komunitatearekin egin beharreko esku-hartzea hainbat agenterekin koordinatuta edota lankidetzan egin nahi da Planean aurreikusitako

tako ekintzak abian jartzeak ijitoen partaidetza baitakar. Agente horien artean ijito-komunitateari lotutako erakundeek izan beharreko erreferentziazko papera azpimarratu beharra dago.

- *Integraltasun-printzipioa*: Planean bildutako helburu eta ekintzak ijito-komunitatearen bizi-kalitatean eta gizarte-ongizatean eragiten duten hainbat jardun-arlotan garatzen dira.
- *Koordinazio-printzipioa*: Aurreko guztiaren ondorioz, zeharkakotasunak eta integraltasunak inplikaturako hainbat agenteren arteko koordinazio- eta lankidetzak eskatzen dute.

8. Planaren garapenean inplikaturako agenteak

Atal honetan Plana ezartzean modu batean edo bestean inplikaturako hainbat eragile aurkezten dira:

- *Eusko Jaurlaritza*: Plan horren helburu nagusietako bat integritasuna denez, haien eskumenak direla-eta Ijito Komunitatearen bizi-kalitatearen hobekuntzan inplikaturako Eusko Jaurlaritzaren hainbat Sailen, Zuzendaritzaren eta erakunderen inplikazioa eskatzen du. Plan horretan bilduko diren neurriak abian jartzean inplikaturakoen artean honako gai hauen eskumena dutenak daude:
 - Kultura.
 - Gazteria.
 - Hezkuntza.
 - Gizarte-zerbitzuak.
 - Droga-mendetasunak.
 - Immigrazioa.
 - Etxebizitza.
 - Gizarteratzea.
 - Enplegua.
 - Familia.
 - Justizia.
 - Giza Eskubideak.
 - Segurtasun Publikoa.
 - Osasuna.
 - Merkataritza.
 - Emakumeen eta gizonen berdintasuna.
- *Foru Aldundiak*: Besteak beste, Planaren helburuekin gurutzatzen diren honako gaietarako eskumena duen agentea da: gizarte-zerbitzuak, kultura, emakumea, eta abar.
- *Udalak eta mankomunitateak*: Besteak beste, Planaren helburuekin gurutzatzen diren honako gaietarako eskumena duen agentea da: gizarte-zerbitzuak, laneratzea, partaidetza soziala bultzatzea,

hezkuntza, etxebizitza eta abar. Tokiko erakunde guztiei ijito-komunitatearekiko esku-hartzearen zenbait erantzukizun emateko garaian, kontuan hartzen da ijito gehienak Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri mugatu jakin batzuetan bizi direla.

- *Ijito-komunitateari lotutako erakundeak*: funtsezko agentea da Plana lantzean eta diseinatzean nahiz Plana gauzatzean eta Planaren ebaluazioa egitean. Ijito-komunitateari lotutako erakundeak esamoldea, Plan horri dagokionez, legez sortutako irabazi-asmorik gabeko eta dagokion erregistroan izena eman duten erakundetzat ulertu behar da; erakunde horien helburuak, fundazio-estatutuen arabera, Plan horren helburu orokorrekin bat etorri behar dute edota zentzu horretan egiaztatutako ibilbidea izan behar dute.

9. Ildo estrategikoak eta ekintzak zabaltzea 2008-2011 aldian

Planaren indarraldian garatzea aurreikusten diren helburuak, ekintza-ildoak eta ekintzak zabaltzea aurkezten dira puntu honetan.

Eskemak, zeinetan datuak iraultzen diren, honako elementu hauek ditu:

- Ildo estrategikoa: Planaren azken helburuak lortzeko ezarritako helburu orokorrei erantzuten die.
- Helburu estrategikoa: Hainbat ildo estrategikotan barne hartutako helburu nagusiak.
- Ekintza-ildoak: Jardueren zehaztapena gidatzen duten bidezidorrak dira eta helburu estrategikoak lortzeko aukera ematen duten hainbat aldagai kontuan hartzen direla ziurtatu nahi dute.
- Jarduna: Garatzea aurreikusten den ekintz/neurri/jarduera zehatza jarduera zehatza.
- Arduraduna: Proposamenen bidez eta aukerak bilatuz ardura hartzen duen jarduna ezartzea gidatzen duen agentea da. Era berean, garapenaren emaitzen jarraipena egiten du.
- Laguntzaileak: Ardura duen agentearekin modu batean edo bestean (finantzaketa, kontrastea, zuzenean gauzatzea eta abar) lagun dezaketen agenteak dira.
- Jardun mota: Ahal den jardun motari buruz ari gara jarduna garatzean lehentasuna eta metodologia ezarri nahian. Hainbat jardun mota daude:
 - Estrategikoa: Jardun esanguratsuak oso garrantzitsua den premiari erantzuten diotelako, (adibidez, enplegua, etxebizitza, osasuna), diskriminazio-egoerak lantzeko aukera ematen dutelako, ijito-kulturaren berezko balioak identifikatzeko aukera ematen dutelako, beste errealitate batzuetarako jakintza esanguratsua sortzeko eta transferitzeko aukera ematen dutelako eta abar.
 - Pilotua edo esperimental: Zenbait udalerritan edo gune jakinetan modu esperimentalean garatzen diren jardun berritzaileak ebaluazio positiboa egin ondoren, beste toki batzuetara transferitzeko.
 - Jardun estrategikoei eta pilotuei edo esperimentalei dagokienez, Planaren indarraldian zehaztuko dira jardun horren esparruan garatuko diren ekintza zehatzak. Ekintzen diseinua egingo da ekintzak garatzean inplikaturako hainbat agenteren artean, kostua eta finantziario-iturriak, ekintzak abian jartzeko jarraitu beharreko prozedura eta ebaluatzeko aurreikusitako metodoa aurreikusiko dira.

- Lehentasun ertaina: Aurretik garatzen ari diren eta garrantzitsutzat hartzen diren jardunak eta beharrezkotzat balioesten diren jardun berriak.
- Lehentasun txikia: Aurretik garatzen ari diren jardun arruntak eta egokituz balioesten diren jardun berriak, baina lehentasunezkoak ez direnak aurreko jardunekin alderatuz.

I. ILDO ESTRATEGIKOA: IJITOEI BIZI KALITATEA HOBETZEA

Ijitoek baliabideak, zerbitzuak eta aukerak lortzeko eta horietan erabat txertatzeko aukera hobetu da gainerako biztanleriarekin alderatuta, ijito-komunitateak abiapuntu dituen desberdintasunak gainditzeko aukera emanez eta hori lortzea zailtzen duten oztopoak kenduz.

I.1. helburu estrategikoa: Haur eta gazte ijitoen eskola-arrakasta handitzea eta goragoko hezkuntza-etapetan sartzea.

I.1.1. Ekintza hildoa: *ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko jardunak bultzatzea.*

Jarduna	Arduraduna	Laguntzaileak	Mota
1. Ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko programa onartzea eta abian jartzea.	<ul style="list-style-type: none">• Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza	<ul style="list-style-type: none">• Ijito-komunitateari lotutako erakundeak• Udalak	Estrategikoa
2. Ikastetxeek ekintza positibo eta inklusiboko proiektuak lantzeko aukera sustatzea ikasle ijitoen eskola-arrakasta eta kulturen arteko bizikidetzaren hobetzeko, Berritzegune zentroek eta hezkuntza-ikuskaritzak jarraipena eginez eta lagunduz.	<ul style="list-style-type: none">• Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Hezkuntza Sailburuordetza (Ikerketa eta Berritzatzeko Zuzendaritza)		Pilotua
3. Ikasle ijitoentzako eta haien familientzako hezkuntza-proiektuak garatzeko erakundeentzako laguntzei eustea eta hala badagokio, sendotzea eskola-eremuan.	<ul style="list-style-type: none">• Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza	<ul style="list-style-type: none">• Ijito-komunitateari lotutako erakundeak	Lehentasun ertaina

Jarduna	Arduraduna	Laguntzaileak	Mota
4. Ikastetxeak baliabide ekonomikoz hornitzea zenbait jardunetarako: Hizkuntza-errefortzua ikasgelan talde heterogeneoetan, hezkuntza-errefortzua eskolaz kanpoko ordutegietan, ikasle absentista berriz itzultzea edo laguntza soziokulturala ikasle ijitoak dauden ikastetxeetan.	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza 		Lehentasun ertaina
5. Ikastetxeetan sentsibilizazio-ekintzak egitea eta haur ijitoak eredu elebidunetan garaiz eskolatzea sustatzeko kanpainak.	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Hezkuntza Sailburuordetza (Ikerketa eta Berriztatze Zuzendaritza) 	<ul style="list-style-type: none"> • Ijito-komunitateari lotutako erakundeak 	Lehentasun ertaina
6. Irakaskuntzako hainbat profesionalen (hala nola Berritzegune zentroetako irakasleak, orientatzaileak, aholkulariak eta aholkulariak) lan-saio bateratuak urtero antolatzea ikasle ijitoen arrakasta zailtzen duten oztopoen inguruan hausnartzeko eta hobetzeko proposamenak diseinatzeko.	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza 		Lehentasun ertaina

1.1.2. ekintza hildoa: *Ikasle ijitoen eskola-porrota indize handia duten ikastetxeak ikasleek beharrezkoa den eskolatz-maila lortzea bermatuko duten ikastetxeetan eraldatzea.*

Jarduna	Arduraduna	Laguntzaileak	Mota
7. Ikasle ijitoen eskola-porrota indize handia duten ikastetxeak aurkitu eta ebaluatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Hezkuntza Ikuskaritza 		Estrategikoa
8. Ikasle ijitoen eskola-porrota indize handia duten ikastetxeak eraldatzeko prozesuak diseinatzea ikasleek beharrezkoa den eskolatz-maila lortzea bermatzeko (ikuskaritzaren, Berritzeguneen eta plangintzaren laguntzarekin).	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Hezkuntza Sailburuordetza (Ikuskaritza, Ikastetxeen Zuzendaritza eta Berritzatze Zuzendaritza) 		Pilotua
9. Ikastetxeak eraldatzeko bideak sustatzea ikastetxeak baliabidez hornituz esku-hartzeko proiektu orokorrak garatzeko, ikasketa-komunitateak, teknologia berrien edo beste esperientzia batzuen bidez ikastea.	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Hezkuntza Sailburuordetza (Ikastetxeen Zuzendaritza eta Berritzatze Zuzendaritza) 	<ul style="list-style-type: none"> • Udalak 	Estrategikoa

1.2. helburu estrategikoa: Bazterkeria-, babesgabetasun- eta indarkeria-egoeretan dauden ijitoen eta ijito-famili- lien bizi-baldintzak hobetzea.

1.2.1. ekintza hildoa: *Indarkeriaren biktima diren emakume ijitoekin saihesteko eta esku hartzeko jardunak bultzatzea.*

Jarduna	Arduraduna	Laguntzaileak	Mota
10. Indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta eskaintzeko zerbitzuak dituzten hainbat erakunderen eta ijito-komunitateari lotutako erakundeen artean lankidetzaren mekanismoak ezartzea tratatu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeentzako dauden eskubide eta baliabideei buruzko informazioa zabaltzen laguntzeko.	<ul style="list-style-type: none"> • Emakunde 	<ul style="list-style-type: none"> • Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Ongizate Zuzendaritza • Foru Aldundiak • Udalak • Ijito-komunitateari lotutako erakundeak 	Lehentasun ertaina
11. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeekin prebentzio-proiektu eta esku-hartze proiektuak egokitzea normalizatutako baliabideetan ijito-kulturaren gakoak sartuz eta beharrezkotzat hartzen denean ekimen berriak diseinatuz.	<ul style="list-style-type: none"> • Foru Aldundiak 	<ul style="list-style-type: none"> • Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Ongizate Zuzendaritza • Emakunde • Udalak • Ijito-komunitateari lotutako erakundeak 	Estrategikoa

1.2.2. ekintza hildoa: *Jardun-esparruan hobetzea haurren babesgabetasunari dagokionez, haurtzaroko eta nerabezaroko eskubideak eta ongizatea bermatze aldera.*

Jarduna	Arduraduna	Laguntzaileak	Mota
12. Hiru lurraldeentzat komunak diren haurren babesgabetasunaren balioespentresnak lantzea ijito-komunitatean nagusi diren kultura-ikuskerak kontuan hartuta haurtzarolari eta familiari dagokionez.	<ul style="list-style-type: none"> • Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Ongizate Zuzendaritza 	<ul style="list-style-type: none"> • Foru Aldundiak • Ijito-komunitateari lotutako erakundeak 	Lehentasun ertaina
13. Bitartekotza eta esku-hartze programak mantendu eta hala badagokio, sendotzea arrisku- edo babesgabetasun-egoeran dauden haurrak eta nerabeak babestearen eremuan.	<ul style="list-style-type: none"> • Foru Aldundiak 	<ul style="list-style-type: none"> • Ijito-komunitateari lotutako erakundeak 	Lehentasun ertaina

I.3. helburu estrategikoa: Ijito-komunitatearen enplegu-arloan egoera hobetzea.

I.3.1. ekintza hildoa: *Ijitoen gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuak lortzeko eta prozesu horietan sartzeko modurik eraginkorrena.*

Jarduna	Arduraduna	Laguntzaileak	Mota
14. Zailtasun handiak dituzten ijitoei lan-merkatuan sartzea ahalbidetuko dien proiektu esperimental berriak bultzatzea.	<ul style="list-style-type: none"> Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Gizarteratze Zuzendaritza 	<ul style="list-style-type: none"> Foru Aldundiak Ijito-komunitateari lotutako erakundeak 	Pilotua
15. Ijito-komunitatearen berezitasunetara egokitutako lan-orientazio eta bitartekotza baliabideak bultzatzea eta sendotzea.	<ul style="list-style-type: none"> Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza 	<ul style="list-style-type: none"> Foru Aldundiak Ijito-komunitateari lotutako erakundeak 	Lehentasun txikia
